**Kirol Zerbitzua**

Albisteak

# MUko ikasle eta langileek abonu berezia dute Aretxabaletako Ibarra Kiroldegian

2012/10/02




Aretxabaletako Ibarra kiroldegia ireki berri dute eta probatu nahi duzula? **zatoz Kirol Zerbitzura eta kiroldegia egun bat dohan erabiltzeko sarrera eskuratuko duzu!!** Kiroldegi hau 2012an ireki da eta punta puntako instalazioak ditu. Besteak beste, igerilekua, rokodromoa, SPA gunea eta fitness gela ederrak.

Behin probatuta eta gustuko esperientzia izan bada, hilean 17€+bez ordainduta MUko ikasle eta langileek Aretxabaletako Ibarra Kiroldegia erabiltzeko aukera izango dute.

Ikasleek astelehenetik ostiralera 08:00etatik 17:00etara erabili ahal izango dute. Gainera, uztaila, abuztua eta irailean abonua eten nahi duenari matrikula gordeko zaio.

MUko langileek aldiz, astelehenetik ostiralera 12:00etatik 14:45etara erabili ahal izango dute. Bertan bazkaltzeko tokia ere badago,  kirola egin ondoren indarrak berreskuratzeko!

Abonatu nahi duenak  MU Kirol Zerbitzuko webgunean eskuratu beharko du "Ibarra Kiroldegian abonatzeko izen emate orria" eta kiroldegian bertan aurkeztu beharko du.

Informazio gehiago nahi izanez gero zatoz kirol zerbitzura.

Oharra: Matrikula erabiltzaile guztiek ordaindu beharko dute (30€ + bez).